



ZUZENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN EUSKAL SISTEMA

OGP EUSKADI – 5. Konpromiso taldea

Ereduaren azken proposamena

5. Konpromiso taldea, 2020

AURKIBIDEA

ZUZENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN EUSKAL SISTEMA: PROPOSAMEN EBOLUTIBO, DEZENTRALIZATZAILE ETA INTERDEPENDENTE BAT	3
1.- AURREKARIAK	3
2.- EZAUGARRIAK	4
2.1.- Sistema ebolutiboa	4
2.2.- Sistema deszentralizatua	4
2.3.- Sistema interkonektatua	5
3.- MAILAK	5
4.- PRINTZPIOAK	6
4.1.- Interes orokorra	6
4.2.- Errespetua eta irekitzea	7
4.3.- Eraginkortasuna eta ondorio onak	8
5.- ESTRATEGIAK	9
5.1.- 1. estrategia: gardentasuna eta kontu ematea	9
5.2.- 2. estrategia: inplikazio publikoa (<i>public engagement</i>)	10
5.3.- 3. estrategia: arkitektura etikoa	11
5.3.1 Kodeak/Arauak/ Eskuliburuak	12
5.3.2 Berme organoa	12
5.3.3 Kontsultak, salaketak eta gatazkak bideratzeko sistema	13
5.3.4 Prestakuntza eta zabalkundea	13
5.3.5 Sistemaren neurketa eta ebaluazioa	13
5.4.- Behatzea eta aztertzea	14
6.- EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNeko IKUSPEGIA	16
6.1.- Gardentasuna eta kontu ematea	16
6.2.- Inplikazio publikoa (<i>public engagement</i>)	17
6.3.- Arkitektura etikoa	17
6.4.- Behatzea eta aztertzea	19
7.- AZKEN HAUSNARKETAK	19

ZUZENTASUNAREN ETA GOBERNU ONAREN EUSKAL SISTEMA: PROPOSAMEN EBOLUTIBO, DEZENTRALIZATZAILE ETA INTERDEPENDENTE BAT

1.- AURREKARIAK

Euskal erakundeak, beren maila guztietan, aitzindariak izan dira etika publikoa sustatzeko eta gobernu ona bultzatzeko legezko eta administrazio mekanismoak abian jartzen. Honako hauek osatzen dute erakunde zuzentasunaren inguruko politika publikoak garatzeko egindako lan garrantzitsua: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren kargu publikoen eta Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoko Etika eta Gobernu Onaren Kodeak (2013) eta EUDELeK sustatutako ELoGE ekimen aitzindariak; orain gutxi udalek Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen babesean onartutako kode berriek; eta kargu publikoen jarduera, gardentasuna eta partaidetza edo foru aldundien zuzentasun sistemen esparruak arautzen dituzten foru arauak.

Garapen hori modu independentean egin bada ere, ez dago zalantzarik lan horren motibazioa interes politiko komun eta partekatu batetik datorrela: ereduazko kudeaketa publikoa ezartzea, printzipio etiko sendoetan oinarritutakoa, erakundeen eta herritarren arteko konfiantza indartzen laguntzeko, herritarrak politikatik urrunduta dauden testuinguru honetan. Zentzu horretan, garrantzitsua da azaltzea ekintza horietan adostasun politiko handia lortu dela eta herri politika moduan ulertu direla.

Abiapuntu ezin hobe da hori, eta, bertatik, planteatzen dugu aurrera egitea erakundeen zuzentasunaren eta gobernu onaren estrategia horiek sakontzen eta hedatzen, elkarlanean, sinergia positiboetan eta interkonexioan oinarrituta.

Horretarako, 3 ezaugarriko sistema bat proposatzen dugu, euskal administrazio publikoaren 3 maileri aplikatu beharrekoa, funtsezko 3 printzipio etikotan oinarritutakoa eta gobernu onaren oinarritzko 4 estrategia garatzen dituen.

2.- EZAUGARRIAK

Zuzentasunaren eta Gobernu Onaren Euskal Sistema (aurrerantzean ZGOES) planteatu da etika publikorako eta gobernu onerako sistema oso moduan. Hura sustatzen dugun erakundeok printzipio eta estrategia partekatuak oinarri hartuz zuzentasun sistema propioak garatzeko konpromisoa hartzen dugu, Euskadin etika publikoaren arloan espazio komun bat egituratzeko, hura osatzen dugun erakunde guztion eskumen banaketa eta autoantolaketarako ahalmena errespetatuz. Bertan sartzen da, kode etikoak eta erreduzko kodeak edo antzerakoak aplikatzeaz eta garatzeaz gain, ekintza sare bat ezartzea ere (ekintza administratiboak, partaidetzakoak, prestakuntzakoak, analitikoak eta ebaluaziokoak), erakundeetan eta sistema demokratikoan jarritako konfiantza publikoa indartzen laguntzeko. Horretarako, ZGOESek oinarritzko hiru ezaugarri ditu:

2.1.- Sistema ebolutiboa

ZGOES oinarri sendoen gainean bermatzen den sistema malgu eta ebolutibo bat da. Aldagai handiak dira errealitate soziala eta funtzio publikoa garatzeko jardunbideak eta inguruabarrak, eta zuzentasunaren eta gobernu onaren sistema bati erreformak eta aldaketak egiteko aukera egon behar da, etengabe ebaluatuz, tresna bizi eta irekia izan dadin. Dinamismo horrek bermatzen du jasangarria izango dela iraun nahi duen sistema oro, hau da, funtzio publikoan eta, beraz, baita hura garatzen den komunitatean ere eragin positiboa eta eraldatzailea izango duen sistema oro.

2.2.- Sistema deszentralizatua

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) administrazioek eta zerbitzu publikoek askotariko ezaugarri, testuinguru eta egoerak dituzte. Horrela, Eusko Jaurlaritzak, etika publikoko eta gobernu oneko arloan esperientzia zabala du, bertako goi karguei aplikatutako Etika eta Gobernu Onaren Kodearen eta Etika Publikorako Batzordearen jardueraren bitartez, zailtasun handiak ditu enplegatu publikoei dagokienez: ugariak dira, sektore askotan aritzen dira eta espezifikotasun handiak dituzte. Pentsa dezagun, adibidez, osasuneko arretaren alorrean. Pertsona ugari egiten dute lan bertan, eta antolakuntza konplexua da (lehen mailako arreta,

5. Konpromiso taldea, 2020

hainbat tamainatako ospitaleak, prebentzioa eta osasun publikoa), eta berezko eskakizun etiko profesionalak dituzten kolektiboak ditu, esaterako, sendagileak eta erizainak. Hain zuzen ere, erakundeetako egoeren espezifikotasun eta aniztasun hori dela eta, administrazio bakoitzak bere denborak ezarriko ditu ZGOESen jasotako estrategiak ezartzeko prozesuetan. ZGOES nahitaez sistema deszentralizatua izan behar da, euskal erakunde publikoen askotariko errealitateetara egokitua, haien erritmoak, araudiak, prozesuak eta gainditutako mugarrak eta egindako lorpenak errespetatuko dituen, betiere nor bere burua antolatzeko ahalaren arabera. Behetik goranzko eredu bat (bottom-up), dibertsitatearekin sentikorra dena (eragileen, antolakuntza mailen, erakunde publikoek egindako jardueren eta eskuragarri dauden baliabide teknikoaren eta aurrekontu baliabideen dibertsitatearekin).

2.3.- Sistema interkonektatua

Aurrekoa gorabehera, ZGOESen helburua da etengabe hobetzea euskal erakundearen kalitate etikoa, eta horregatik planteatzen du maila eta azpisistema guztien lotura bat, horiek guztiak lotzeko aukera emango duen praktika onen arloko lankidetzak, ikerketa, koordinazioa eta proposamak bilduko dituen espazio baten bitartez. Asmoa da “sare itxurako sistema” bat ezartzea, EAEko erakundearen zuzentasunarekin zerikusia duten maila, egitura, ekintza eta eragile guztien artean, guztien arteko “kapilaritatearako” aukera emanez, jardunbide egokiak hedatuta eta egokituta eta arazoak, esperientziak eta irtenbideak partekatuta. Horrela, ezagutza partekatu garrantzitsua sortzen da, sistema ezartzeari balio erantsia ematen diona.

3.- MAILAK

EAEko sektore publikoko erakundeak eta organizazioak askotarikoak dira, arestian esan dugun moduan, eta, horregatik, gutxienez 3 jarduketara maila ezberdindu behar ditugu gure ZGOESen, administrazioaren 3 antolakuntza moduen arabera: erkidegokoa, foru mailakoa eta tokikoa. 3 administrazio mailen egitura ezberdina da, bai tamainagatik bai konplexutasunagatik, erakunde bakoitzak bere burua antolatzeko hartzen duen ahalaren arabera.

Sektore publikoan, guztira, EUSTATEN 2017ko Administrazio Publikoen Direktorioaren arabera, 131.885 pertsonak egiten dute lan (2. eranskina).

4.- PRINTZPIOAK

ZGOESen bere azpisistema moduan jasotako legediak, kodeek eta jardunbideek hainbat balio eta jardunbide arau partekatzen dituzte, 3 printzipio etiko orokorretan laburtu daitezkeenak. Horrela, ikuspegi minimalista hartu dugu ZGOES osatzen duten printzipio etikoen inguruan, erakundeen zuzentasun eredu anglosaxoien erara. Balio, sarri ondo mugatu gabeko printzipio eta manu etiko eta tekniko ugari hartzen dituzten beste zuzentasun eredu batzuek, bildu ezinezkoa biltzeko asmoa dutenek, hau da, kudeaketa publikoan azaldu daitezkeen arazo, egoera eta gatazka guztiak barruan hartu nahi dituztenek ez bezala, eredu honek “zentzuzko” ikuspegia hartzen du, ikuspegi ireki eta malgua. Hiru printzipio etiko orientagarri orokor hartzen ditu oinarritzat, eta, gero, euskal sektore publikoa osatzen duten administrazio eta erakundeek horiek zehaztuko dituzte egiten dituzten arauetan, ekintzetan, araudietan eta prozeduretan, testingurua, antolakuntza egituren eta aldaketa teknologiko, sozial eta kulturalaren arabera:



1. diagrama: printzipio etikoak

4.1.- Interes orokorra

Interes orokorra (onura komuna) da sektore publikoko administrazioen eta erakundeen jardueraren funtsezko helburua. Hori dela eta, zaindu eta sustatu egin behar da, hura kaltetzea, narriatzea edo okertzea saihestuta.

Onura komuna, baina, ulertuta, epe labur, ertain eta luzean partekatua den hura bezala, herritar guztien onerakoa, eta laguntzen duena interes kontrajarrien arteko oreka lortzen ekitatearekin. Garrantzitsua da haren bilaketan herritarren partaidetzako mekanismoak sustatzea, balioetan hezitako eta ahaldundutako herritar batzuenak.

5. Konpromiso taldea, 2020

Horrek guztiak kaltegarritasun ezaren (kalterik ez) ideia etikora garamatza, printzipio etiko oinarritzko, funtsezko eta partekatu moduan ulertuta. Sektore publikoak herritarrentzako zerbitzurako ondasun publikoak modu egokian zaintzen eta erabiltzen direla bermatu behar du (zaintza eta gaitzea).

Printzipio etiko orokor hori, era berean, herritarrekin batera hausnartu diren printzipio batzuetan hedatzen da, eta honako hauek nabarmentzen ditu: erantzukizuna, zuzentasuna, inpartzialtasuna eta objektibotasuna, onestasuna eta desinteres objektiboa eta eredugarritasuna.

4.2.- Errespetua eta irekitzea

Errespetuaren printzipioa oinarritzen da administrazioarekin harremanetan dauden pertsona guztiak –hornitzaileak, lizitatzailerak, zerbitzu emaileak nahiz kideak, eta, bereziki, herritarrak eta elkarte zibikoak– tratatzea duintasuna, kontzientzia (iritzia, irizpideak eta sinesmenak), askatasuna eta eskubideak dituzten subjektu moduan.

Printzipio hori lotuta dago herritarrak eta administrazio publikoa elkarrengana hurbiltzeko behrrearekin, harremana gertuagokoa, errespetuzkoagoa eta, azken finean, gizatiarragoa izan dadin administratutakoekin eta zerbitzu publikoak erabiltzen dituztenekin (“administrazio abegitsua” esan izan zaio). EAEn jada aplikatutako kodeetan zentzu horretan doazen jardunbide arauak sartu dira: kortesia, hezibide ona, enpatia, begirunea, arreta eta abar.

Printzipio horrek administrazioen zerbitzu bokazioa sendotzen du, bere ekintzaren erdigunean jartzen dituelako herritarrak, eta, aldi berean, aipatutako portaera-arauak modu proaktibo batean sustatzen ditu. Administrazio bat, herritarrekin eta herritarrentzat lan egiten duena, irekia eta irisgarria, pertsonen laguntzen diena eta erantzunak ematen dituen; eta herritar batzuk, konpromisoak bereganatzen dituztenak eta erantzukideak direnak.

Errespetuaren printzipioak berekin dakar herritarrei arreta jartzea ez soilik administrazio publikoarekin duten harremanaren subjektu pasibo moduan, baita politika publikoetan parte hartzen duten eragile proaktibo eta eraldatzaile moduan ere, haiek esparru publikoaren kudeaketa eta zerbitzu publikoak hobetu baititzakete partaidetzaren, kosorkuntzaren eta

5. Konpromiso taldea, 2020

kokudeaketaren bitartez (ikus “inplikazio publikoa” atala). Administrazioak irekitzea eta lankidetzan nahiz partaidetza-espazioak sustatzea aukera bat bezala ageri dira, berrikuntzak egiteko eta balio publiko handiago bat sortzeko aukera bezala.

Horrekin guztiarekin bat etorrira, eta ZGOES definitzeko egin den partaidetza prozesuaren barruan, herritarrek honakoak nabarmentzen dituzte printzipio orokor honi dagokionez: gardentasuna eta datu irekiak, berdintasuna eta diskriminazio eza, herritarren partaidetza eta elkarrekin sortzea, begirunea, kontu ematea, entzumen aktiboa, ekitatea eta ziztntzotasuna eta egiazkotasuna.

4.3.- Eraginkortasuna eta ondorio onak

Horrek esan nahi du administrazio publikoaren jardueraren berezko ondasunak eta zerbitzuak ematea, zerbitzu publikoaren alorrean dagoeneko aipatu dugun interes orokorra sustatzeko helburua dutenak (onura komuna). Printzipio horrek, jardueraren izateko arrazoiak berak, hainbat konpetentzia ekarriko ditu, banakakoak eta antolakuntzakoak. Beraz, printzipioa honela birformulatu daiteke: “gauzak ondo egitea pertsonen on egiteko” (edo “besteei on egitea ondo egindako jarduera baten bitartez).

Helburua da herritarren ongizatea eta bizi-kalitatearen hobekuntza lortzea, ez bakarrik indibidualtasunaren aldetik, baita kolektibitatearen aldetik ere, administrazio on baten bitartez.

Bertan daude jokoan, balio etikoez gain, administrazio publiko on batentzat kontuan hartzen diren arau teknikoak, antolakuntzakoak, ekologikoak, ekonomikoak eta abar (zerbitzu eta maila bakoitzari egokitu dakizkiokeenak): diligentzia, etengabeko prestakuntza, austeritatea (baliabideen kudeaketa austeroa, ez austeritate politikak), berrikuntza, jasangarritasuna (egin behar dena egitea pertsonen bizimodua jasangarri bihurtzeko), lidergoa edo konfidentzialtasuna.

Printzipio orokor horrek erantzuna ematen dio hala ekintza publikoaren emaitzei dagokien eraginkortasunari eta efizientziari nola funtzio publikoaren beraren antolakuntzari, interes orokorraren eta errespetuaren aurreko bi printzipioei dagokienez. Horren guztiaren helburua da kalitate eta bikaintasun profesionala lortzea.

5. Konpromiso taldea, 2020

Horiek horrela, eta herritarrekin egindako hausnarketa bateratutik ateratako ondorioak kontuan hartuta, printzipio orokor hau printzipio gehiagotan ere banatzen da, hala nola eraginkortasuna eta efizientzia, jasangarritasuna, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-arloko kohesioa, erakundeen arteko elkarlana, lidergo partekatua eta eraldatzailea eta bikaintasun profesionala.

5.- ESTRATEGIAK

Erakunde zuzentasunaren eta gobernu onaren sistema kolaboratibo honen oinarria, mota honetako beste edozein ekintzarena bezala, herritarrek administrazioekiko konfiantza indartzeko palankatzat jotzen dituzten funtsezko 4 estrategia orokorretan oinarritua dago: gardentasuna eta kontu ematea, inplikazio publikoa (*public engagement*), arkitektura etikoa eta behatzea eta aztertzea.



2. Diagrama: estrategiak

5.1.- 1. estrategia: gardentasuna eta kontu ematea

Gardentasuna, zalantzarik gabe, gobernantza etikoaren, gobernu irekiaren zutabeetako bat da, eta kontu ematearen funtsezko zati bat da. Izan ere, ezin da enplegatu publikoen ekintzen eta jardueraren berri eman eta hori jakinarazi beharrezko informazioa, egiazkoa eta egokia eman gabe. Gardentasuna definitu daiteke eragile guztientzako informazio ekonomiko, sozial eta politiko egokiaren eta fidagarriaren goranzko fluxu moduan. Informazio horrek, esparru publikoan, aukera eman behar du hori eman duten erakundeak ebaluatzen eta iritzi arrazionalak eta ongi oinarrituak sortzeko erabaki batean zeresana izan duten edo parte hartu dutenentzat. Gardentasunak berekin dakar politika publikoak ahalik eta publikoen egitea, argitaratzeko betebeharra eta informaziora sartzeko salbuespenak mugatzea. Hortaz,

5. Konpromiso taldea, 2020

emandako datuak beharrezkoak, berrerabilgarriak, integratuak, metatuak eta konparagarriak izan behar dira. Informazio publikoak egiazkoa izan behar du, hau da, argitaratutako informazioa egiazkoa eta zehatza izan behar da, eta egiazkotasun eta fidagarritasun egiaztatua duten dokumentuetatik edo beste informazio iturri batzuetatik eratorritakoa izan behar da. Hori, gainera, objektiboa, eguneratua eta egokia izango da gardentasunaren helburuak betetzeko. Informazioa egituratuta eta garbi argitaratuko da, modu ulerterrazean, hizkera irisgarritz idatzita. Informazioaren izaera edo edukia dela medio, informazioa konplexua bada bertako teknizismoengatik, bertsio espezifiko eta erraza egingo da, argitaratzeko.

Are, kudeaketa publikoaren gardentasunak eragin onuragarriak ditu ez soilik demokraziaren kalitatea hobetzean, baita sektore publikoaren nahiz pribatuaren eraginkortasunean eta ekonomian ere, datuak multzokatu eta berrerabiltzen direlako (open data), eta opakutasuna eta datu fidagarrien falta handitzen duten eskualdatze kostuak murrizten direlako.

Gardentasunari oso estu lotuta dago kontu-ematea, berekin dakarrena hartzen diren erabakiekin gardenak izateko erantzukizuna aitortzea eta bereganatzea, eta haien zergatia azaltzea; hau da, aldizka, lortutako helburuei eta emaitzei eta lortu ez direnei eta horren zergatiei buruzko informazio argia ematea. Azken batean, kontu-emate demokratibo bat, non herritarrek begirale diharduten.

5.2.- 2. estrategia: inplikazio publikoa (*public engagement*)

Funtzio publikoa modu etikoan ulertzeak berekin dakar gobernatzeko modu ireki bat, erakundeen ardura osatzen duena, kudeaketa horretan esku hartzeko aukera duten eragile sozialen pluraltasunari atea irekiz. Horrela, herritarrak ez dira soilik subjektu pasibotzat jotzen zerbitzu publikoekin dituzten harremanetan, eragile proaktibotzat eta eraldatzailea ere jotzen dira, zerbitzu publikoa bera eta haren kudeaketa hobetu dezakeen eragiletzat. Zentzu horretan, politika publikoetako eragile guztiek (politikariek, enplegatu publikoek, teknikariek, elkarteek, pertsonak) beren beharrak definituko eta besteenak aintzatetsiko lituzkete, adierazleak ezartzen lagunduta, irtenbideak partekatuta eta, azken buruan, gauzatzean inplikaturik eta emaitzen balantze sozialean esku hartuta (erantzunkidetasuna, kokudeaketa). Kultura parte

5. Konpromiso taldea, 2020

hartzaile horren adibideak dira aurrekontu parte hartzaileak, komunitateko garapen planak, agenda 21, herritarren foro eta epaimahaiak, hausnarketa inkestak eta herri galdeketak.

Herritarrek politika publikoekin lotutako erabakiak hartzean gehiago inplikatzeko lagundu egiten du politika publiko horiek sakonago zilegitzen. Zalantza handiko testuinguruek erabaki publikoak eskatzen dituzte, eztabaida eta politika, jokoan daudelako gizartearentzako funtsezkoak diren gaiak, adibidez, berdintasuna, lana, osasun publikoa, zahartzea eta abar. Helburua da herritarren parte hartzea handitzea, inklusioan, ahalduntzean eta erantzunkidetasunean oinarrituta. Horretan zeregin garrantzitsua dute IKT komunikazio teknologia berriek, herritarrek, elkarte sozialak eta ekonomikoak politika publikoak garatzean inplikatzeko erraztuko duten elementu moduan.

5.3.- 3. estrategia: arkitektura etikoa

Enplegatu publikoek zuzentasunaren eta gobernu onaren kultura garatzeak eta kudeaketa balio etikoetan oinarrituta egiteak, eta nahi ez diren jardunbideak prebenitzeak, ez dakar soilik administrazio eraginkor bat, pertsonen alde eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duena, estrategia bat ere bada herritarren eta erakundeen arteko konfiantza indartzeko, baita azken horien zilegitasunean sakontzeko ere.

Zentzu horretan, agerian geratu da egokia dela erakundeek zenbait tresna, prozedura eta organo sustatzeko zuzentasun esparruak garatzea balio etikoak erakundeen balio gisa barneratzeko testuinguru bat sortzeko. Ez da ahaztu behar, gainera, funtzio publikoari balioa ematen eta zerbitzuak ematen laguntzen duela.

Bikaintasuna eta kalitatea xede dituen arkitektura etiko honetan funtsezko elementuak dira jokabide eta jardunbide egokien kodeak, gidak edo eskuliburuak, etikaren arloko prestakuntza, arriskuaren ebaluazioa, eta interes gatazken inguruko kontsultarako, salaketarako eta kudeaketarako mekanismoak, besteak beste.



5. Konpromiso taldea, 2020

3. Diagrama: Arkitekura etikoaren elementuak

5.3.1 Kodeak/Arauak/ Eskuliburuak

Printzipio eta balio etikoak biltzen dituzte, eta, horien arabera, jokabide egokiak eta, batez ere, desagokiak. Formatua edozein dela ere, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Etikaren eta zuzentasunaren inguruko printzipio orokorrak jasoko dituzte.
- Argi eta erraz ulertzeko modukoak izango dira.
- Zehatz adieraziko dira profil edo esparru bakoitzarengandik espero diren jokabideak (erantzukizun politikoa duten pertsonak, administrariak, osasun arloko langileak, irakasleak, eta abar).
- Dagokien kolektiboekin kontrastatuta definituko dira.
- Etengabe berrikusi eta hobetuko dira.
- Erakundearen ohiko kudeaketa prozesuetan txertatuta egongo dira.

5.3.2 Berme organoa

Erakundeak berme organo bat izan dezake erreferente gisa edo kontrolerako organo gisa. Kodeak, arauak eta eskuliburuak behar bezala bete eta aplikatzen direla zainduko du organo honek, eta baldintza hauek beteko ditu:

- Organo independentea izango da.
- Gardena izango da, bai osaerari dagokionez, bai bere jardunari dagokionez.
- Lantzen dituen gaien inguruko konfidentzialtasuna bermatuko du.

Eginkizun hauek izango ditu:

- Zuzentasun sistemaren jarraipena.
- Jokabide etikoaren kontrola.
- Kontsultak, kexak eta, halakorik balego, salaketak ebaztea.
- Hobekuntza proposamenak.

5. Konpromiso taldea, 2020

5.3.3 Kontsultak, salaketak eta gatazkak bideratzeko sistema

Aurreikusten da etikari eta zuzentasunari buruzko kontsultak egin, gatazkak kudeatu eta ez betetzeagatiko demandak kudeatzeko sistema bat ezartzea progresiboki. Horren bidez:

- Salaketen anonimatua bermatuko da, hala eskatzen denean.
- Erakundeak kontsulta eta ez betetzeagatiko demanda guztiak ebazteko konpromisoa hartzen du.

5.3.4 Prestakuntza eta zabalkundea

Zuzentasun sistema zabaltzeko jarduerak egingo dira, bai erakundearen barruan, erakundeko langileei prestakuntza eskainiz, bai kanpoan, sistema herritarrei, enpresei, elkarteei eta gizarteari oro har ezagutaraziz. Jarduera hauek egingo dira besteak beste:

- Prestakuntza programak
- Zabalkunde jarduerak.
- Zuzentasun sistemaren urteko memorien argitalpena.

5.3.5 Sistemaren neurketa eta ebaluazioa

Zuzentasunaren eta gobernu onaren sistema batek jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak behar ditu, horrez gain, informazio publiko eta irisgarria eskainiko duena bere jardueraren inguruan. Horrez gain, sistemak gardena ere izan behar du, eta zuenean ukitutako pertsoenez gain, gizartea inplikatzeko ere behar du.

Ebaluatzen ez den zuzentasun sistema bat, bere eragina aztertzen ez duena, bere jardueraren inguruan hausnartzen ez duena, porrota eta ezereza izango da. Ebaluazioa (politika publikoena, planena, programena eta zerbitzu publikoena) behaketa, neurketa, analisi eta interpretazio prozesu integrala, gardena eta parte hartzailerak da, eta haren helburua da esku hartze publiko bat ezagutzea, balioespen judizio bat egiteko aukera emango diona, ebidentzietan oinarrituta, haren diseinuaren, praktikaren, emaitzen eta eraginaren inguruan.

5. Konpromiso taldea, 2020

Beraz, sistema bat eduki behar da, zuzentasun sistemaren helburuak lortzeko bidean egindako lana neurtzeko eta bide horretan noraino aurreratu den jakiteko, eta, batez ere, lan horrek guztiak herritarrek erakundearengan duten konfiantza mailan izan dezakeen eragina ebaluatzeko. Hala, herritarren partaidetza aintzat hartzen duten neurketa sistemak ezarriko dira.

Arkitektura etiko horretan, herritarrek hautematen dute aukera bat sistema osatzen duten edo osa dezaketen askotariko elementuen definizioan edo hedapenean parte hartzeko. Hala, kodeak prestatzean, planteatzen da kontraste saioak egiteko aukera; berme organoak osatzean, aldarrikatzen dira haien independentzia eta herritar adituen partaidetza, eta herritarrek organo horietara jo ahal izatea modu errazean eta prozedura arin eta erabakitzailerik baten bidez; eta azkenik, prestakuntzan eta hedapenean, herritarrek planteatzen dira eragile proaktibo eta bermatzaile gisa, gaitasunak garatzeko, eta, aldi berean, prestakuntza horren hartzaile gisa.

Beste alde batetik, ZGOESek eragile eta eremu hauei jarri behar die arreta, kontsulta egin zaien herritarren iritziz:

- ⇒ erantzukizun politikoa duten pertsonak
- ⇒ enplegatu publikoak
- ⇒ kontu-ematea
- ⇒ kontratu publikoak
- ⇒ komunikazio instituzionala
- ⇒ dirulaguntzak
- ⇒ hautaketa-prozesuak

5.4.- Behatzea eta aztertzea

Esan dugu jada ZGOES oinarri sendoetan bermatutako sistema malgu eta ebolutibo bat dela, eta, funtzio publikoaren eta euskal gizartearen behar aldakorrei eta eskaerei behar bezala erantzuteko, haren jarduera behatu egin behar da.

Behatze hori egiteko, euskal funtzio publikoaren hainbat mailatan etika batzordeak edo komiteak ezarri dira, organizazio horiek kodeen edo jardunbideen jarraipena bultzatzen,

5. Konpromiso taldea, 2020

koordinatzen eta egiten dutenak, eta horiek beteko eta garatuko direla bermatzen duten organo moduan aritzen direnak. Haien zereginen artean egon daitezke, erregulazioan ezarritakoaren arabera, kexak eta salaketak jasotzea, kontsultak eta dilemak ebaztea, galderak eta gomendioak egitea, eta hedapena eta prestakuntza sustatzea ikastaroen, mintegien, hitzaldien eta abarren bidez. Kasu batzuetan, haien zereginen artean dago jardunbide betetzen ez diren kasuetan zehapenak proposatzekoa.

Batzorde horiek lan eskerga egin dute kontsultak eta ez betetzeagatik demandak erantzuten, arazoak aztertzen, gomendioak egiten eta zabaltzen eta beren esparru eta eskumenetan prestakuntza ematen. ZGOES erakunde guztietan aplikatzeko modukoa izan dadin, udalerrien ezaugarriak edo tamaina edozein izanda ere, eta aplikatzerakoan kalitate eta zorroztasun irizpideak bete daitezzen, batzorde hauek –hala badagokie eta bakoitzaren erregulazioaren arabera, betiere ZGOESen berme organo gisa jardun ahal izango dira hala eskatzen duten tokiko entitate txiki eta ertainentzat.

Etika batzorde horiez gain, ordea, ZGOESek planteatzen du, halaber, koordinaziorako, azterketarako, analisirako eta prospektibarako espazio bat sortzea, ahalbidetuko dituen EAeko etika publikoaren maila desberdinen eta askotariko garapen graduen arteko koordinazioa eta lankidetzak. Lankidetzak espazio hau osatuko dute berme organo bakoitzeko ordezkariak edo euskal administrazio publikoaren maila desberdinetan arlo honetan erantzukizuna duten pertsonak, bai eta gizarte zibilaren ordezkariak eta egin beharreko azterketetan eta hausnarketetan aholkua eman dezaketen adituek ere.

Hain zuzen ere, ebazpen organo horietaz gain, sistemaren aztertzean eta behatzean, kontsulta egin zaien herritarrek partaidetza-bideak planteatzen dituzte, bai kontraste prozesuen bidez bai herritarren ordezkariak berariaz sartuz ikerketaren eta azterketaren bidez ZGOES etengabe hobetzeko sortzen diren eremuetan, eta, nolana ere, ezinbestekotzat jotzen dituzte gardentasuna eta emaitzen kontu-ematea.

Espazio horren helburu nagusia izango da etengabe hobetzea euskal funtzio publikoko maila eta esparru guztietako zuzentasun azpisistemak, esperientziak, arazoak eta erresistentziak

5. Konpromiso taldea, 2020

partekatuta, berrikuntza publikoko proiektuak garatuta, prestakuntza planak diseinatura, ZGOES nazioarteko esperientzia onenekin konektatuta eta konparatuta. Lankidetzan espazio hori osatzen duten pertsonen ZGOESen jarraipena, monitorizazioa eta hobekuntza ekintzak egiteko tresnak definituko dituzte.

6.- EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNeko IKUSPEGIA

EAEko sektore publikoko erakundeek eta organizazioek azken urteetan lan gogorra egin dute erakundearen zuzentasunaren eta gobernu onaren alorrean, eta ZGOESen ekintzak abian jarri dituzte oinarritzko lau oinarritzko estrategien inguruan: gardentasuna, inplikazio publikoa, arkitektura etikoa eta behatzea eta aztertzea. Horrek erakusten du EAEko erakundeak gobernatzen dituzten talde politikoek ukatu ezinezko lidergoa dutela, Euskadiko sektore publikoko organizazioetako kalitate etikoaren eta erakunde zuzentasunaren estandarrak igotzeko helburu partekatuarekin.

6.1.- Gardentasuna eta kontu ematea

Gardentasunaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek eta tokiko erakunde ugari eskuragarri dagoen informazio publikora eta erakunde horietan sortutakora libre sartzeko politika ezarri dute, bereziki IKT tresnak ezarrita (gardentasun atariak eta datuetara sartzekoak).

Administrazio gardenaren politika honetan sakontzeko, garrantzitsua da informazioa herritarren zatulergarria eta hurbilekoa den modu batean argitaratzea, eta horrek balio izatea, gainera, funtzio publikoan jarduten duten pertsonen datuak behar bezala kudeatzearen onuraren kontzientzia har dezaten.

Orobat, estrategia horretan sakontzeko urratsak egitea da esparru horretan gardentasuna eta kontu-emateak hobetzeko konpromiso berriak hartzea, eta, oro har, administrazioan jasotako datu guztietarako sarbidea hobetzea.

Administrazioek aurrerapausoak egin dituzte kontu-emateen arloa sistematizatzen, bereziki gobernu programei dagokienez. Horren harira, honako alderdi hauei buruzko informazioa ematen zaie herritarrei: egindako kudeaketa, hartutako erabakiak eta horien arrazoiak,

5. Konpromiso taldea, 2020

lortutako emaitzak eta horien inpaktua, bai eta lortu gabekoak ere, herritarrek kudeaketa ebaluatu dezaten, ekarpenak entzuteko eta balioztatzeko aukera ematen duten baterako deliberazio espazioetan. Kontu-emate horren oinarri diren printzipioak honako hauek dira: materialtasuna, erantzukizuna, eragina eta inklusioa.

6.2.- Inplikazio publikoa (*public engagement*)

Kudeaketa publikoaren kultura etiko berri horrek ezinbestean berekin dakar enplegatu publikoak eta herritarrak inplikatzeko. Horretarako, herritarrek parte hartzeko bideak ezarri dira politika publikoen diseinuan eta jarraipenean, bereziki herritarrengandik gertuen dauden esparru administratiboetan (probintzia, tokiko erakundeak). Gaur egun, EAEn parte-hartzeko bide anitzak daude: herri galdeketa (Estatuko legedia mugatzaileak sortutako legezko trabak gorabehera), agenda 21ak, aurrekontu parte hartzaileak eta interes soziala duten hainbat esparrutako esku hartzeetako plan integralak (generoa, hirigintza), adibidez.

Inplikazio publikoaren mekanismo horiek hedatzea eta sakontzea ezinbestekoa da ZGOES finkatzeko, herritarrak politika publikoetako partaide eta erantzule bihurtzeko, eta, horrela, haien zilegitasuna eta aintzatespena areagotzeko.

6.3.- Arkitektura etikoa

Res publican esku hartzen duten pertsonen eta jardura administratibo nabarmenen inguruko etika kodeak, gidak edo eskuliburuak sortzea tresna egokia da dena delako funtzioaren dimentsio etikoaz hausnartzeko eta enplegatuen gaitasun etikoa, txertatzen den gizartearen balioetan edo printzipioetan oinarritutakoa, indartzeko bidean gidatzeko. Horrenbestez, ildo horretan lan egiten jarraitzea ezinbestekoa a zaigu, estrategia horretan kolektibo eta jardura berriak txertatzen saiatuta.

Halaber, ezinbestekoa da ZGOES herritarrek eta enplegatu publikoek ezagutzea, modu eraginkorrean funtzionatu behar badu. Horregatik, hedatze programak garatzen hasi dira (sarea, esku orriak, informazio puntuak, jardunaldiak), baita prestakuntza planak ere. Hain zuzen, ZGOESek zuzentasunaren kultura profesionaltasunari eta bikaintasunari lotzen die, eta

5. Konpromiso taldea, 2020

hori aintzatetsi egingo da enplegatu publikoen sarbidean eta haien ikasketa profesionala sustatzean.

Epigrafe horretako errefortzu neurrietako batzuk dira honako hauek:

- Etikaren eta gobernu onaren tresnak kudeaketa publikoko beste jarduera batzuetara hedatzea. Saiatuko da printzipio etikoak eta jardunbide arauak beste esparru batzuetara hedatzen, goi karguen kudeaketa politikotik haragokoetara. Horrela, funtzio publikorako sarbidea, kontratazio publikoa, dirulaguntzak edo herritarren datuen eta informazioaren erabilera erakunde zuzentasunaren ikuspegitik jorratu daitezke.
- Sozietate publikoetan, fundazioetan eta sektore publikoko beste erakunde batzuetara etikaren eta gobernu onaren mekanismoak eta tresnak hedatzea.
- Kultura etikoa eta jardunbide egokiena gizartearen beste sektore batzuetara hedatzea erakunde publikoekin dituzten harremanetan. “Zuzentasuna ezagutzeko programak” egingo dira enpresekin, GKE-ekin, elkarteekin, kirol erakundeekin eta abar.
- Etika publikoko prestakuntza eta eguneratze profesionalerako etengabeko programa.
- Etika publikoen, zintzotasunaren, gardentasunaren eta gobernu onaren inguruko edukiak sartzeko proposamena (Txilen egin den bezala) derrigorrezko bigarren hezkuntzako curriculumetan, “etika eta balio zibikoak” ikasgai.
- Salatzaileak babestea. Protokolo bat egitea, salatzaileak babestearen arloan nazioartean dauden praktika onak jasotzen dituen.
- Komunikazio kanalak eta kontsultak eta ez betetzeagatiko demandak egiteko mekanismoak sustatzea. Prozedura, bitarteko eta protokolo eskuragarri mota guztiak abiaraztea sustatuko da, bai salaketetan bai eta praktika onen kodeei eta antzekoei buruzko kontsultetan ere. Horretarako, konfidentzialtasuna bermatuko da beharrezkoa denean, eta bereziki zainduko da salatzaileak nahiz salatuak babestea.

5. Konpromiso taldea, 2020

6.4.- Behatzea eta aztertzea

Sistema behatzea eta aztertzea ahalbidetuko duen espazioa abian jartzea izango da jorratu beharreko erronketako bat. Horretarako, lantalde bat eratuko da, erakundeetako ordezkariak, adituek eta herritarrek osatua, haren konfigurazioan, funtzioetan eta azterketa-tresnetan aurrera egin dezan.

7.- AZKEN HAUSNARKETAK

Zuzentasunaren eta gobernu onaren sistemak helburutzat du erakundeek zuzentasun sistemak garatzen joateko konpromisoa hartzea, betiere printzipio eta estrategia partekatu batzuk oinarri hartuta, eta etika publikoaren arloan espazio komun bat egituratzea Euskadin, huraosatzen dugun erakunde guztion eskumen banaketa eta autoantolatze ahalmena errespetatuko dituen.

Gure helburu partekatua aldaketa prozesu batean aurrera egitea da, eraldatzea, aldaketa bat eraginez administrazioen zerbitzuan lan egiten duen persona ororen *ethosean*, (erantzunkizun politikoa izan ala funtzionario izan).

Helburu hori lortzeko, kudeaketa publikoak garatu beharra du kokudeaketa publiko zilegi eta fidagarria lortzeko jomugarekin. Garapen hori funtsezkoa da zalantza handiak eta eraldaketa sozial eta ekonomiko handiak dauden une batean. Hori horrela, zuzentasunaren eta gobernu onaren sistema herritarrekin partekatua izan da (elkarrekin sortua), eta hala izan behar du, bai definizioari eta garapenari dagokienez, bai monitorizazioari eta ebaluazioari dagokienez.

Urratu beharreko bidea da “sare itxurako sistema” hori, arauak eta legedia biderkatu beharrik gabe, dagoeneko aplikatuta dauden azpisistemak bultzatzeko eta garatzeko helburuarekin, eta horien guztien arteko sinergiak eta elkarrengandiko irakaspenak errazteko, Euskadiko kudeaketa publikoan eta gobernantzan kultura etikoa lortzeko helburuarekin.

Azken buruan, hori da helburu nagusia: sektore publikoan lan egiten duen pertsona oroengan ohitura berriak sortzea, kultura etiko berri bat sor dadin, printzipio etiko sendoetan eta gobernu onean –gardentasunean, eraginkortasunean eta efizientzian– oinarritutako kudeaketa

5. Konpromiso taldea, 2020

publiko bat, herritarrek beren erakundeekiko duten konfiantza handitzen lagunduko duena, hartara erantzukizun kolektiboko sena indartu eta arauak barneratzen eta kultura zibiko erantzunkide eta parte-hartzaileago baterantz egitenlaguntzeko.